

IKASTAROAREN AURKEZPENA IKASLEENDAKO INFORMAZIO OROKORRA

Ikastaroko lehen egunean, arretaz irakurri zer konpromiso hartzen dituzun ikasle moduan, eta uste baduzu ezin dituzula bete, ez sinatu bertaratzea, eta prestakuntza zentroari jakinarazi ez parte hartzea erabaki duzula, erreserbako zerrendako pertsona batek zure lekua har dezan.

1. IKASTARO GUZTIEI BURUZKO INFORMAZIOA

- **IKASTAROA, DIRUZ LAGUNDUTA.** Ikastaroa Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NL-NEZak) diruz lagunduta dago. Ikastaroa egiteko behar diren material eta ekipo guztiak emanen ditu prestakuntza zentroak.
- Ikastaroaren **hartzaileak** langabeak eta landunak dira.
 - NL-NEZan **enplegu eskatzaile moduan inskribatuta** daudenak jotzen dira **langabetzat**, bekadunak eta Gazte Bermerako Sistema Nazionalean izena emanda daudenak barne.
 - **Landunak**, berriz, alta emanda daude Gizarte Segurantzaren, edo mutualitateetan kotizatzen dute.
- Prestakuntza ekintzetan, **parte hartzea gehienez ere eguneko 8 eskola-ordukoa izanen da.** Muga horren barruan egonen dira, hala egokituz gero, lantokietako prestakuntza praktikoko moduluko orduak.
- Ikastaro bat **arrazoi justifikaturik gabe UZTEN bada, hiru hilabetez ezinen da ez beste ikastaro batean izena eman** ez beste ikastarorik egin, eta berekin ekartzen ahal du zehapen espediente bat irekitzea prestazioari, errenta bermatuari eta enplegu eskaerari buruz.
Ikasleak ekintza utzi duela jakinarazi behar dio prestakuntza zentroari, bai eta horretarako arrazoia zein izan den ere. **Justifikatutzat jotzen da uztea, Gizarte Segurantzako alta duen lan batengatik bada.** Lan-ordutegia eta ikastaroaren ordutegia bateragarriak badira, ikastaroa amaitzen ahal da.
- **KANPORATZEA.** Ikastarotik kanporatzeko arrazoi izan litezke:
 - Aprobetxamendurik eta interesik eza.
 - Prestakuntza ekintzaren garapen arrunta trabatzea.
 - Irakasleekiko, ikaskideekiko eta zentroko langileekiko errespeturik edo adeitasunik eza.
 - Zentroko instalazioak eta ekipamenduak gaizki erabiltzea.
 - Zentroko funtzionamendu araudian ager daitekeen beste edozein.Ikastarotik kanporatzearen ondorio izanen da kanporaketa gertatu ondorengo **12 hilabeteetan beste ikastarorik ezin egin ahal izatea.**
- **DIPLOMA** (profesionaltasun ziurtagiri bat lortzeko **ez** diren ikastaroetan): prestakuntza zentroak diploma bat emanen du **prestakuntza ebaluazio positiboarekin gainditu bada.** Diploma hori lortzeko, honako **baldintza** hauek bete behar dira, ikastaroa nola ematen den:
 - Zuzeneko modalitatea edo gela birtualean: ikastaroak dituen orduen %75ean gutxienez parte hartzea.
 - Prestakuntza mistoko modalitatea: prestakuntza ekintzaren %75 gutxienez egitea. Kalkulua modu haztatuan eginen da, zuzenean bertaratuta emandako orduak eta teleprestakuntzan egindako jardueretan emandakoak oinari hartuta.
 - Teleprestakuntza modalitatea: programatutako jardueren %75 gutxienez egitea. Profesionaltasun-ziurtagiriko ikastaroen kasuan, jardueren % 100 egin beharko da.

Prestakuntza-ekintzak hainbat prestakuntza-espezialitate baditu, ikaskuntzaren ebaluazioa modu independentean aplikatuko da espezialitate bakoitzean. Espezialitate batean gai kalifikazioa lortzeko, langileak gutxienez espezialitate horren % 75 egina izan beharko du, eta probetxuz gainditua.

➤ ENPLEGU ESKARIARI BURUZKO INFORMAZIOA (LANGABEAK)

Ikastaroaren hasieran, alta emanen zaie Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, prestakuntza ekintza bateko parte hartzaile moduan, eta **eskaria etenda egonen da**, hau da, **ez dute berritu behar izanen**, eta ez dute informaziorik jasoko enplegu eskaintzei buruz. Gainerako zerbitzuetan ez da aldaketarik izanen. Langabeziagatiko prestazioa ez da inoiz eteten, dagokion eskaerari baja eman ezean lanean hasteagatik.

Eskaria ikastaroa hasi eta lehen 15 egunen barruan zigilatu behar badu, berritu egin beharko du. Ordutik aitzinera, eta ikastaroa amaitu artean, etenda izanen du.

Ikastaroa amaitu ondoren, edo utziz gero, **bere enplegu bulegora joan beharko du** datuak eguneratu eta **eskaria berriz indarrean jartzeko**.

Ikastaroan zehar, aldaketaren bat gertatzen bada lan-egoeran (adibidez, ordu batzuetan lan egiten badu), enplegu eskaerari ekin beharko dio berriz.

Enplegu eskaintzak jasotzen jarraitu nahi baduzu, jarri harremanetan zure enplegu bulegoarekin, edo, bestela, erabili bulego elektronikoaren zerbitzua webgune honetan: www.empleo.navarra.es.

2. ZUZENEKO ETA GELA BIRTUALEKO IKASTAROEN INGURUKO INFORMAZIOA

- Zuzeneko ikastaroak eta praktiken aldia gelako eta joan-etorrietako istripuetarako **aseguru batek estaltzen ditu**. Istripua gertatuz gero, harremanetan jarri prestakuntza zentroarekin.

- **NAHITAEZKOA DA ZUZENEKO IKASTAROAN PARTE HARTZEA**. Justifikatu gabeko hiru falta baino ez dira onartuko hilean. Horregatik, agiri bidez justifikatu behar da edozein bertaratze edo puntualtasun falta. **Justifikatu gabeko laugarren falta egindakoa**n, ikasleak **ikastaroa utzi beharko du**.

- Zuzeneko ikastaroetan, ikaslearen **BERTARATZE EHUNEKOA** kalkulatzeko, bai justifikatu gabeko **faltak** bai **justifikatuak** hartuko dira **bertaratu gabeko ordutzat**. Eta ikastaroa hasi ondoren sartu direnen kasuan, **eman gabeko hasierako orduak**.

- **BEKAK ETA LAGUNTZAK ZUZENEKO IKASTAROETAN, GELA BIRTUALEKO IKASTAROETAN ETA LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKETAN**

Beken eta laguntzen **hartzaileak langabe izan** eta enplegu bulego egokian **izena emanda dutenak** izanen dira. Pertsona bat langabea ala landuna den erabakitzeko, prestakuntza ekintzaren edo praktikaren hasierako lan egoera kontuan hartuko da.

Ikastaroa langabezian hasten bada eta ikasturtean zehar kontratazio-aldiak badaude, langabezian egondako egunak bakarrik hartuko dira kontuan. Hilean **justifikatu gabeko 3 hutsegite baino gehiago izanez gero, legozkiokeen bekak eta laguntzak galduko dira**, une horretatik ikastaroa utzi arte. Ikastaroa lanean hasten bada, ez da eskubiderik izango bekak eta laguntzak eskatzeko, nahiz eta ikasturtean zehar langabezian egon.

Eskatzen ahal diren bekak eta laguntzak hauek dira: **desgaitasun eta genero indarkeriaren bekak; garraio, familia kontziliatorako eta mantenu laguntzak**. Beka eta laguntza bat baino gehiago eskatzen ahal da ikastaro bakoitzean. Prestakuntza zentroak emanen du bekak eta laguntzak eskatzeari eta baldintzei buruzko informazioa.

3. PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIA LORTZEKO ZUZENEKO IKASTAROEN INFORMAZIOA

- **IKASITAKOAREN EBALUAZIOA**: ikastaroan, bi ebaluazio mota egingen dira, ikasketa prozesuak iraun bitartekoa, eta modulu bakoitzaren amaierakoa. Nahitaezkoa da azken proba hori gainditzea "Gai" kalifikazioa lortzeko. Modulu batean **azken proba egin ahal izateko**, moduluak guztira dauzkan **orduen %75ean gutxienez parte hartu beharko da**.

- **LANTOKIETAKO PRESTAKUNTZA PRAKTIKOKO MODULUA**

Nahitaezkoa izanen da **profesionaltasun ziurtagiria** lortu nahi duten guztientzat. Iraupena eta edukiak kasuan kasuko ziurtagirian ezarritakoak izanen dira.

Prestakuntza zentroak ziurtagiriko lanez besteko praktiken modulua egiteko aukera emanen die ikastaro horrekin profesionaltasun ziurtagiriko prestakuntza modulu guztiak osatzen dituzten ikasleei.

Ikasleak praktiken modulua egitetik **salbuetsiko dira baldin eta egiaztatzen duten lan esperientzia** bat badator **gutxienez 3 hilabetekoa** den ziurtagiriko praktiken moduluan jasotako gaitasunekin, gutxienez 300 orduz lan egin izanda salbuespena eskatu aurreko azken 5 urteetan. **Eta baldin eta esperientzia prozeduraren bidez gutxienez gaitasun unitateren bat izaten badu**.

- **PROFESIONALITASUN ZIURTAGIRIA:** eskatzen dutenei, ziurtagiriari lotutako prestakuntza **modulu guztiak gainditu** dituztela frogatzen dutenei eta **10 euroko tasa ordaintzen dutenei** emanen zaie ziurtagiria. Tasa **ordainketa-gutun** bidez ordainduko da, honako hau erabiliz: http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/7076/Solicitud-de-Certificado-de-Profesionalidad. Ikasleak ziurtagiriaren eskabidea eta tasaren ordainagiria aurkeztuko ditu prestakuntza zentroan, NL-NEZan izapide ditzan. Ikasleek ziurtagiri eskabidean adierazitako Hezkuntza Departamenduko lanbide heziketako zentroan jasoko dute titulazioa.
- Lortutako gaitasun profesionalen egiaztagiri partzial metagarria emanen die Hezkuntza Departamenduak ziurtagiriari lotutako modulu guztiak gainditzin ez dituztenei (eskaerarik egin edo tasarik ordaindu behar izan gabe). Prestakuntza-zentroak akreditazioa emango die ikasleei.

4. PIFE PROGRAMEI BURUZKO INFORMAZIOA

IKASLEAK PROGRAMAN SARTZEA: prestakuntza-orduen % 25 (teknikoa eta eraldaketa digitala eta garapen jasagarria) eman aurretik sartu ahal izango dira programan. Aldi horren barruan, pertsona bat orduen % 25aren ondoren edo profesionaltasun-ziurtagiriaren prestakuntza-modulu baten 5. egunaren ondoren hasten bada lanean, edo espezialitate baten orduen % 25aren ondoren, ezin izango da ebaluatu, ezta modulu/espezialitate hori gainditu izanaren egiaztagiria lortu ere.

AKONPAINAMENDUA PIFETAN: programa honetako ikasleek banakako eta taldeko tutoretzen bidez jasoko dute laguntza pertsonalizatua, prestakuntzaren aprobetxamendua ahalik eta gehien errazteko, lanekoak ez diren praktikak kudeatzeko eta programa amaitzean kontratazioa sustatzeko.

BEKAK ETA LAGUNTZAK: prestakuntza teknikoaren fasean eta enpresetan lanekoak ez diren praktiketan aplikatuko dira. Ez dira aplikatuko eraldaketa digitalari eta garapen jasagarriari buruzko prestakuntzan, ezta laguntza-fasean ere.

ENPLEGU-ESKARIARI BURUZKO INFORMAZIOA: Ikasle guztiek enplegu-eskatzailer gisa izena emanda egon beharko dute programaren hasieran, enplegu-zerbitzu publikoetan.

PIFE programa batera joanez gero, beharrezkoa da enplegu-zerbitzuetan izena emanda egotea PIFEko prestakuntza eta akonpainamendua osoan zehar (ez dira sartzen enpresetako praktikak). Hau da, programa langabetu gisa hasten bada eta langile bihurtzen bada, baina ikastaroarekin jarraitzen badu, enplegu-hobekuntza gisa inskribatu beharko da; eta alderantziz, enplegu-hobekuntza batekin hasten bada eta langabezian geratzen bada, enplegu-agentzian inskribatu beharko da. Izen-ematea beharrezkoa da ikasleen orientazioa garatu ahal izateko.

LANEKOAK EZ DIREN PRAKTIKAK: Prestakuntza-zentroak lanekoak ez diren praktika hauetako bat eskaini beharko die baldintzak betetzen dituzten ikasleei:

- Ziurtagiriaren praktika-modulua. PIFEk profesionaltasun-ziurtagiri bat badu, ikastetxeak profesionaltasun-ziurtagiriko prestakuntza-modulu guztiak programa honetan gainditzin dituzten ikasle guztiei antolatuko dizkie praktika horiek.
- Profesionaltasun-ziurtagiriari lotuta ez dauden praktikak. PIFE guztietan (profesionaltasun-ziurtagiriarekin edo gabe), ikastetxeak praktika horiek antolatuko dizkie profesionaltasun-ziurtagiri baten praktika-modulua egiten ez duten pertsonen, betiere programaren prestakuntza teknikoaren % 75 gutxienez ebaluazio positiboarekin gainditu badute. Ezingo dira 6 hilabete baino gehiago igaro programa amaitu eta praktika horiek hasi arte. Prestakuntza teknikoaren iraupenaren % 20 eta % 100 artekoa izango da, eta ezingo da inoiz 40 ordutik beherakoa izan.

Praktika horiek nahitaezkoak dira ikasleentzat. Praktika horiek egiten ez dituen ikasleak "praktikari uko egitea" dokumentua sinatu beharko du.

LANERATZEA: prestakuntza-zentroak enpresa batean gutxienez prestakuntzaren % 75 egin duten langabeen % 25 kontratatzeke konpromisoa du.